



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Autolan enpresa aurrera eramateko hainbat baliabide hartu behar ditugu kontuan. 3 funtsezko baliabide mota ditugu: alde batetik, funtsezko baliabide ukigarriak; zerbitzuak eskaintzeko ezinbestekoak direnak eta fisikoak direnak (instalazioak, ekipamendua...) Jarraitzeko, baliabide ukiezinak, direla enpresan arrakasta lortzen laguntzen digutenak eta ez direnak gauza fisikoak (kontaktuak, esperientzia...) eta amaitzeko, baliabide sozialen edo ingurumenekoen garrantzia.

Hasteko, baliabide ukigarriei dagokienez, ekipamendua dago. Ekipamenduaren barruan kotxeak lortzeko beharrezkoa den materiala sartzen da. Horrez gain, instalazioak kontuan hartu behar ditugu, hemen kotxeak gordetzen ditugulako. Jarraitzeko, finantza baliabideetan hasieran izandako inbertsioa sartzen da, honekin enpresa garatzen hasten da.

Bigarrenik, baliabide ukiezinetan, marka eta ospea dauzkagu: autolan enpresa bezeroak izateko eta ospetxua bilakatzeko ezinbestekoa da marka irudi polita izatea eta bezeroek gure zerbitzua erabiltzen amaitzean esperientzia politarekin joatea. Horretarako, autolan enpresan sektore honetan esperientzia eta ezagutza nahikoa duten langileak kontratatuko ditugu, beraz, bezeroak ez dira inoiz kexatuko jasotako tratamenduaz. Kontaktu sarearekin jarraitzeko, hasieran kontratatutako kolaboratzaile estrategikoak eta finantziatzaileak iturri fidagarri batetik lortuko ditugu, geroago gatazkarik ez izateko.

Bukatzeko, baliabide sozial eta ingurumenaren garrantzitsuari dagokionez, gizarte baliabideak garrantzitsuak izango dira, komunitatearekin lan egiten baitugu (auzo lanak egiterako orduan)

Gure ustez, baliabide garrantzitsuenak edo nabarmenagoak **ukiezinak** dira, hauek enpresa aurrera eramateko lehen pausua baitira. Eraginkortasuna maximizatzeko, baliabideei probetxurik handiena atera behar diegu horregatik, bilatuko dugu ahalik eta prezio baxuenan dauden baliabideak baina kalitate ona izatea garrantzitsua da.